



EUSKARALDIA 2020

Hasteko, gogoratu nahi dugu nortzuk hartu zuten parte lehenengo Euskaraldian: **AHOBIZIAK** eta **BELARRIPRESTAK**. Pertsonen arteko ariketa izan zen orain dela bi urtekoa eta, izan ere, aurten ere bi rol horiek oso presente izango ditugu. Labur azalduko dizuet zein diren bi rolak:

1. **AHOBIZI:** Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo du. Euskaraz ulertzen ote duten ez dakienean lehen hitza, beti, euskaraz egingo du eta euskaraz ulertzen badu, euskaraz jarraituko du. Gakoa ahal den guztietan euskaraz egitea da.



2. **BELARRIPREST:** Euskaraz ulertzen du eta euskaraz egitea eskatzen die besteei. Beraz, gutxienez euskara ulertu behar du. Hala ere, nahi eta ahal badu, euskaraz egingo du. Gakoa jokaeran dago eta ez gaitasunean.



Aurten ariketa taldean ere egingo denez, norbanako bezala parte hartzeko aukeraz gain, taldean parte hartzeko aukera ere izango dugu **ariguneen** bidez. Baina, **zer dira ARIGUNEAK?**

“Euskaraz lasai aritzeko guneak dira, denek ulertzen dutelako, eta euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro. Ariguneak entitate barrukoak edo kanpokoak izan daitezke.”



Ariguneak osatzeko hainbat baldintza bete behar dira.

2.1. **BARNE-ARIGUNEA** osatzeko, entitate barrukoa:

- Kide guztiek gutxienez euskara ulertzeko gai izatea
- Kide guztien ehuneko laurogei gutxienez parte hartzeko ados egotea

2.2. **KANPO-ARIGUNEA** osatzeko, entitateak herritarrekin dituen harremanetarako:

- “Ahobizi” edo “belarriprest” modura parte hartzeko ados egotea.
- Harremana euskaraz izan dadin bermatzea.